



**Emakumezkoen errugbia lehenengoz Michelinen.**– Beltzak errugbi taldea sortu zela 30 urte bete direla eta, ospakizun gisa antolatuta zuten larunbat arratsaldean Hernani eta Eibar/Irun taldeen arteko emakumezkoen errugbi partida, Michelinen historian lehenengo aldiz, Euskal Ligako 8. jardunaldiko neurketa izan zen. Hasi eta buka nahieran menderatu zuten Hernanik norgehiagoka eta 60-Deko emaitzarekin egurru zuten Eibar/Irun. Mele, touch eta baloi-jokoan gehiago izan ziren hernaniarrak jokaldi landu eta azkarrak bata bestearen atzetik uzartuta. Dena den, hirugarren denborak argi erakutsi zuten bezala, bi taldeen artean giro ona eta errespetua izan ziren benetako protagonistak. Agian, errugbian irabaztea ez delako dena. Aipagarria da Hernaniko taldean hiru lasarteoriatar iritsen direla: Maitane Ormazabal, Maider Garmendia eta Maite Maestro, baina larunbatean Garmendiak bakarrik jokatu zuten Michelinen. Bestalde, Babyauro ZRTBeltzak taldeak Atletico San Sebastian izan zuen aurkari kadete mailan, Euskal Ligako 2. fasean. Zarauzko Astin jokatu zuten partida herritarrek eta 41-17 nagusitu ziren errugbi maila handia erakutsiz. Motibazioa, joko ona eta konfidantza izan ziren partidaren gakoak eta emaitzak alde handia erakusten duen arren, Atleticonen lan eskerga ere azpimarratzekoa izan zen. Azkenik, atzo alebnek topaketa izan zuten Orion eta 16 urtez azpiko taldeak galdu egin zuten ostralean, 12-45 irabazi zien Hernanik.

**3 FESTA**  
**San Pedro jaiki finkatzen ari dira Udala eta herritarrak**

Herritarren iradokizunak jasotzeko Jaietan Blai! ekimena jarri du aurten ere Udalak martxan. Asteartean, otsailaren 25ean, 18:30etan ekimeneko bigarren saioa egingo da Udaletxe berriko harreran. Elkarte eta herritarren proposamen zehatzak aztertuko dira bertan.

**4 GIZARTEA**  
**Zero Zabor taldearen festa Okendon**

Ospakizun artean hartu dite Lasarte-Oria Zero Zabor taldeko kideek Zubietako erraustegia eraikiko ez denaren berria. Horretarako, herritarrekin batera jaialdia antolatu zuten larunbatean. Trikitilari eta pandero-joleak, erraustegiaren murala, txalapartariak, sorgindantza herrikoia...izan ziren.



**5 INAUTERIARIK**  
**Euskal Inauteririk datorren igandean Okendo plazan**

Iazko biderei jarraiki, Ttaku-nek Euskal Inauteri festa prestatu du igandean. Bertan parte-hartzeko, txantxoz janzteko gonbitea luzatu die elkarteak herritarrei. Goizean eta arratsaldean euskal dantza egingo dituzte eta festari amaiera hartzeren erretzearekin emango zaio.

Bideo Lagunak  
**TIEEN 21**  
Euskadiko enpresa eta erakundeak

**¡MUGITU!**  
**PREZIOAK JAISTEN DITUGU**  
**ERAKUSKETA ALDAKETAGATIK**  
**DENA LIKIDATZEN DUGU**

## Adituak dio



## Oihana Salazar

**L**anak bizitzako zai handia hartzen du; garrantzitsua da. Lanak ongi-zate-psikologiko eta soziala lortzen laguntzen digu; denboraren kudeaketa egituratzen digu; familia-nukleotik kanpo harenan izatea baimendu; estatus sozial konkretu bat lortzen digu, eta ohitura eta errutina konkretuak jartzen dizkigu. Gure egunerokotasuna euskari egonkorra duela sentitzeko balio du, nolabait. Honela, bizi dugun giro aldakor eta zalantzagariak kolokan jartzen du gure bizitzaren zati bat, lana galtzen dugunean. Lanak, gugan aldagai positibo batzuk baditu.

Derrigorrezko langabezi egoerak, beraz, eragin handia du. Kalte ekonomikoek gain, ondorio sozial eta psikologikoek arreta berezia hartzen dute. Efektuak aldakorak dira adin, sexu, eta langabeziaren luzapenaren arabera, baina badaude emozio komunak, noski. Orkorrenak larritasuna, antsietatea, beldurra, frustrazioa, eta haserrea dira, eta nola ez, guztiak gure autoestimua eta identitate personalen ere eragin zuzena du. Are gehiago, zenbait persona depresiora bultzatzen dute.

Langabezi egoera iraupen luzeak bada, eta langabetu huts bihurtuz gero, hutsune handia senti daiteke, bizitzanorabidea galduko bagenu bezala. Denbora aurrera joan heinean, egoeratik ezin aterata geratzen bagara, erruditu sentimenduko iritsi daitezke, segurtasun eza eta lotsa. Lanpostu edo lan bat lortzea guztion ixaropena da; txikitatik barneratu dugun gizarte-nahi hori; kulturak horretara bultzatu gaitu, eta, familiarik eta eskolak horixe indartu digute. Hau da, lanpostua edota lana ezinbestekoak dira nor izateko. Ondorioz, langabeziaren egotearen ardura osoa guregain har dezakegu: ezertarako gogorrik gabe eta etsita sentitzeraino. Ponrotaren pisua ikaragarria izan daiteke. Suminkortasunak nahaste psikosomatikoak ere ekar ditzake: digestio-nahasteak, azaleko arazoak eta bihotzekoak, esaterako. Guzti hori sendatzeko pilula magikorik ez dagoenez, egoera onartu eta bizitzari zentzu berri bat aurkitzea besterik ez zaigu geratuko! Hausnarketarako proposa izan daiteke! Ez ahaztu, krisiak nahiz eta gogorrik izan, ikasketa-prozesuak dira.

## 1.459

**L**angabezia behin baino gehiagotan aipatu dute zubategieek. Egun herrian dagoen arazo larrienetakoa da eta egunerokoa eragin zuzena duena. Denek dugu sende, lagun edo ezagunen bat langabeziari, ziur bat baino gehiago tamalez. Ez da soilik lanik ez edukitzea, adituaqk dion moduan lanak gure bizitzaren parte handi bat hartzen du eta horren faltan, arazoak sor daitezke.

Baina arazoaren neurria ezagutzeko horra datu sorta: Lanbidek urtarirlean emandako datuen arabera, Lasarte-Oriak bere biztanleriaren %16,6a dauka langabeziari, hau da, 1.459 pertsona. Hauen artean 663 dira gizonak eta 796 emakumeak.

Gauza da 2014a ez dela behar bezain ondu hasi izan ere 2013ko abenduaren gutxiago ziren gurean lanik gabe zeude-

nak. 1.370 lagun ziren, horien artean 635 gizon eta 735 emakume.

Adin tarteari erreparatzen bazaio, urtarirlean langabeziari zuzenduen artean multzo handiena zen 25 eta 44 urte artekoena, 755 langabetu. 45 urtetik gorakoak direnak 619 dira eta 25 urte azpikoak beriz, 85.

Urnuti geratu da herriko lanteri handiekin lanpostu mordoa eskaintzen zutenekoa. Azken urtetako langabezia tasari erreparatuta, esan daiteke 2007an izan zirela datu "onenak". Urte horretan langabeti tasa 750 eta 700 langabetu artean mantendu zen, behearakada izan zen abenduak erakutsi zuena. Aldiz, 2008tik aurrera gorakada etengabekoa izan da. Tendentzia aldaketa gertatuko dela diote baina tunelaren amaiera langabeziari dauden herritarrentzat ez da agertzen.

## Hitz eta pitz

## Langabeziak arduratzen zaitu?



## Mari Carmen Bueno

Bai, arduratzen nauden gaia da langabeziarena. Nik bi alaba ditut eta bat lanik gabe dago. Brasilen lanean egon da sei hilabetez eta oraintxe etorri da. Aterrirra beriz momentuz behintzat, ez du joan nahi baina ikusita nola dagoen hemen lan merkatua ez dakit zer egingo duen askenean. Nik egia esan, etorkizuna oso beltza ikusten dut batez ere gazteentzat.



## Basi Marti

Langabeziak beti arduratzen gaitu, ezta? Ni lanean nago baina hiru hilabetero ordaintzen didate beraz, lan baldintzak ere ez dira onerak joan. Herrian ez zait iruditzen ezer dagoenik lanpostuak sortzeko. Diote datuorren artean egoera hobetuko dela baina beltza ikusten dut etorkizuna. Argi daukat lehengo egoerara ez gaitela bueltatuko nahiz eta gauzak hobera aldatu.



## Angel Barrera

Langabezia geroz eta arazo larriagoa da gure inguruan eta zaila ikusten dut kontpontzea. Nik behintzat etorkizuna oso beltza ikusten dut. Iruditzen zait gainera erakundeek ez dutela inbertsiorik egiten eta horrela lanpostuak sortzea oso zaila da. Enpresariok ere geroz eta inbertsio gutxiago egiten dituzte, arrisku gutxiago hartu eta horrela ez da lanik sortuko.




## Iñaki Fernandez

Egoera kezkarria da, nik lagunak ditut langabeziari eta ez da erraza. Hala ere, hedabideetatik jasotzen dugun berria ez ezkerren aurrean, baiorak izan behar garaile uste dut. Ziklo bat da eta pasako da. Halako bolada txarrak lehen ere egon direla iruditzen zait. Egia da herriko denda, abernetan mugimendu gutxiago dagoela eta guztiak eragina dauka.

## Iruditan

## Fabrika handiak



1993an erailli zen Brunet Langitea Oriain.

Herrian hainbat fabrika handi kokatu ziren XX.mende hasieran. Honek bizilagun herrien uholea ekarri zuen eta lana aurkitzea erraza zen. Urteetan gora behar izan zituzten baina Bruneten 500 langile inguru zeuden, Bianchi 1.000 langilera iritsi zen eta Michelinen ere antzeko kopurua egon zen. 80. hamarkadan hainbat lantoki itxi egiten ziren eta honek langabetu tasa asko igotzea eragin zuen herrian. %24,8ko langabezia tasak izan ziren, 2001etik aurrera %10ean kokatu zen eta 2009tik aurrera kopuru hau aipatu bezala, gora egiten hasi zen engungo datuetara iritsi arte.

## Diruz laguntzen duten erakundeak

## Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Laguntzailea



GPKo Kultura eta  
Euskara Departamendua

## Argitaratzailea:

Tiatkun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legeko gordailua:

SSS13/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

## txinbarri

## Eredakzioa:

Nerea Ezpigitze, Maider  
Azumendi, Jon Altuna E.  
txinbarri@txinbarri.info

## Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola  
publizitatea@talu.com  
administrazioa@talu.com

## Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Maialu Arri, Asier  
Odiola, Jose M. Hernandez,  
Oihana Salazar, Pako Aizpirtarte,  
Edu Galardi

## Informatikoa:

Xabier Amadoz

JAIKAK

# San Pedro jaia zehazten

## Jaietan Blai! ekimeneko bigarren bilera asteartean

Lasarte-Oriako Udalak 2014. urteko San Pedro Jaia antolatzen ari da. Herritarren iradokizunak jasotzeko Jaietan Blai! ekimenari jarri du aurten ere martxa. Asteartean, otsailaren 25ean, 18:30etan ekimeneko bigarren saioa egingo da Udaletxe berriko harreran. Honetan elkarte eta herritarren proposamen zehatzak aztertuko dira.



Jaietan Blai! 2014 prozesuko lehen bileran jaietako ezaugarriak finkatu ziren.

TXINTXARRI

**S**an Pedro jaietarako lau hilabete geratzen badira ere, Lasarte-Oriako Udala dagoeneko egitaraua lantzen ari da. Aurten ere, Gazteria, Festak eta Kirolak arloko herritar zein elkarten laguntza osatu nahi ditu jaiak eta horregatik, Parte-Hartze sailarekin batera Jaietan Blai! ekimendura sartuko da. Urtarrilaren 28an, lehen bilera egingo zen Udaletxean. Honetan, gogoitik gora herritar bildu ziren San Pedro jaien ezaugarriak, festek nolokako beharko luketenez zehaztera.

**Proposamen zehatzak**

Asteartean, 18:30etik aurrera, Jaietan Blai! prozesuko bigarren topaketa izango da Udaletxe berriko harreran.

Oraingoan, proposamen zehatzak, hau da izen edo ekimen zehatzak eskaintzeko aukera izango du bilerara hurbiltzen diren herritar, zein elkarteek.

Era honetara, egitaraua bete eta festei jada benetako forma emango da.

**Beste bideak**

Horretaz guztiaz gain, herritarren batek proposamena egin nahi baina topaketara gerturatzeko aukerarik ez bada, Gazteria, Festak eta Kirolak departamentuak beste modu batzuk daudela jakitera eman du.

Iradokizunak Lasarte-Oriako Udalaren sare sozialean bidez edo herriko etxe guztietara banatuko den eskuorriaren bidez helarazi ahal

da. Esku-orri hau eraikin publikoetan dauden postontzietan beteta utzita behar da.

Proposamenak jasotzeko epea martxoaren 16ra bitarteko izango dela azpimarratu du Udalak.

**Parte hartzea gonbita**

Udal ordezkariak herritar guztiak astearteko topaketan parte-hartzea gonbidatu nahi dituzte.

Gainera, proposamen konkretuak aurrez pentsatu nahiez gero, herritarrek Lasarte-Oriako udaletxeako albistearen web orrialdean, [albisteak.lasarte-oria.org](http://albisteak.lasarte-oria.org), lehen bileran zehaztutako ezaugarriak zein diren jasotzen dituen dokumentua eskuragarri dutila azpimarratu du.



Andoingo Piano jaialdian izan ziren ikasleak lortutako domina eta diplomekin. LOME

**MUSIKA ESKOLA**

### Kontzertu bufoa eta akordeoi jaialdia

Lasarte-Oriako Udala Musika Eskolak asteazkenean, otsailaren 26an, Inauterietako Kontzertu bufoa eskainiko du Manuel Lekunon arratsaldeko 19:00etan.

Eskolako txikiak emango diote hasiera kontzertuari. Ondoren, pianoa, biolina, gitarra klasiko, musika tresna desberdinez osaturiko talde desberdinak... entzun eta ikusi ahal izango dira oholtzan.

Bestalde, Udala Musika eskola 14 ikasle Andoingo Piano jaialdian izan ziren haien trebetasuna erakusten.

800 haur baino gehiagok parte hartu zuten jaialdi honetan eta herriko gazteak urrezko hiru domina, zilarrezko 10 eta brontzezko bat eskuratu zituzten. Udala Musika eskolako kideak oso pozik agertu dira gartzetxoek egindako lanarekin.

**SAHARA**

### Mendebaldeko Sahararen alde

Lasarte-Oriako Saharar herriaren lagunak taldearen mozioa aztertu eta onartu zen otsailko Udalbatzarrean. Hori dela eta, ostegun honetan, otsailaren 27an, Saharar nazio aldarrikatu zeneko 38. urterurrean Mendebaldeko Saharako bandera izango da Udaletxeako balkoian.

Era berean, Saharar herriaren lagunek elkarteak "Maroko Sahararik at, autodeterminazioa eta independentzia" lelopean elkarretarate deialdia egin du ostegunerako. Okendo plazan izango da, 19:00etan.

**IKASTAROA**

### Makrobiotika gertutik

Makrobiotika ikastaroa antolatu du Ttakunek martxoan zehar. Iaz izandako arrakasta ikusita, aurtengoa ere honetan bertazeko aukera izango da Nerea Cereñok gidatuta.

Bi talde egingo dira. Batek asteleheneratan 18:00etatik 20:00etara izango ditu saioak eta besteak ostiraleratan 18:00etatik 20:00etara.

Osasun Zentroko azken solairuan dagoen HHI-EPA-ko sukaldean izango da ikastaroa eta honetan barrezarri sukaldatza, algen prestaketa eta sobratutako jakiak birerabiltzen ikasiko dute parte hartzaileek besteak beste.

Izen emate epea ireki da. Inskripzioa Ttakuneko bulegoan egingo da eta otsailaren 28a arte, ostirala arte izango da aukera. Ikastaroarengatik 22 euro ordainduko dituzte Ttakuneko bazkideek eta 25 euro ez direnek.

**INAUTERIAK**

### Mozorro festa

Amarau Klubeko lagunek hainbat ekitaldi prestatu dituzte Lasarte-Oriako haur eta gurasok Inauterietarako, martxoaren 1 eta 2rako hain zuzen ere, prest egonak. Inauterietarako mozorroa edo makila ikastaroa dira horietako batzuk.

Baina Inauterietako asteburuen ostean, haurrek jai dute-nez, martxoaren 4ean, astearte 11:00etatik aurrera, 4-8 urte arteko gartzetxoentzat mozorro festa berezia antolatu dute Klubeko arduradunek.

Honetan parte hartzeko haurrek izena eman behar dute Ttakun kultur elkartearen, 943 371 448 telefonora deituz edo [asia@ttakun.com](http://asia@ttakun.com) helbidera mezuaz bidaliz. Antolatzailerak antzerki digutenez, egunean bertan, haurrek 2 euro eta adingariak eraman beharko dituzte.



Patagonian barrera ibili ziren aurreko asteazkenean Jalgira hurbildu zuten herritarrek.

# Diaporamen azken saioan, Korsika

**T**takun K.E.-k antolatzen dituen bidaletako diaporamen azken saioa izango da asteazkenean, 19:30etatik aurrera, Jalgi Kafe antokian.

Honetan Korsika ezagutzeko aukera izango da Alex Tetuanen eskutik.

Herritarrek urrian lagunekin batera irlan egindako egonaldian, eskalada turismoarekin uztartu zituen.

**Saioak**

Hilabete honetan zehar egingo diren saioetan, Irlandako Kerry Way, Nepal edo Patagoniako paisaia paregabeak ikusteko aukera izan da, Xabier Erauskín, Ostadar mendari sailako lagun eta Jexux Presareren eskutik, hurrenez hurren.

Hainbat izan dira saio

hauetara hurbildu diren herritarrek. 40 minutuko irudi bidezko aurkezpenetan bidaletan bizitako abenturak eta pasadizoak entzun eta nahi beste galdera edo zalantza plazaratu dituzte hauek ikusi eta entzundakoaren inguruan.

Izan ere, saio hauen helburua solasaldia egingo da denari artean gau giro bikainaz gozatzeko.

Partaide zen antolatzaileek azken saiora hurbildu edo hurrengo urteko diaporama saioetan parte hartzea gonbidatzen dituzte herritarrek.

# Erraustegiaren eraikuntza eten izana ospatu dute

## Lasarte-Oria Zero Zabor taldeak jaialdia egin du larunbat arratsaldean Okendo plazan

Festa eta ospakizun artean hartu dute Lasarte-Oria Zero Zabor taldeko kideek Zubietako erraustegia eraikiko ez denaren berria. Horretarako, herritarrek batera jaialdia antolatu zuten larunbatean. Trikitilari eta pandero-joleak, erraustegiaren murala, txalapartariak, sorgin-dantza herrikoa, Xumela abesbatza, txokolatada eta Makulu Ken izan ziren eguneko protagonistak.

Trikitilariak kalez kale egindako ibilbide labur batekin eman zitzaion hasiera festari, eta arratsaldeko 17:00ak pasatxo zirela, Lasarte-Oria ZZeko kideek oholtzatik hitza hartu zuten: "urrats oso garrantzitsua eman dugu denon artean, herritar guztien artean, zorionak Lasarte-Oria!".

Ospatzeko dutena ez dela gutxi uste dute. 10 urte luzez borroka egin ostean helburua lortu dutela adierazi zuten: "horregatik bildu gara plaza honen bueltan, Zubietako errauste plantak gure eguneroko bizitza gris bilakatu ez duela ospatzeko, arnastuko dugun airea kutsatu ez duela ospatzeko".

Dena den, oraindik ezin dutela "erlaxatu" adierazi zuten, erraustegiaren obrak gelditzea aurrerapausotzat definitu duten arren, Zero Zabor helburua bidean egiteke "bide asko" dutela gogorazi dute.

Hainbat datu eman zituzten gainera. "Gipuzkoa eredu da hondakinak kudeatzen, 30

udalerrik baino gehiagok %70eko birziklatze tasa dutelako, baina Lasarte-Oria zoritxarrez ez dago multzo horretan, %30eko tasa baitu".

Testuinguru horretan, gehiago birziklatu nahi dutela eskatzeko mural bat ere osatu zuten, kapa birekin. Azaleko kapa erraustegia ageri zen, ke eta iluntasun artean, baina arratsaldeak aurrera egin ahal, herritarrek paneleko piezak kendu eta argazi argi eta koloretsua deskubritu zuten.

Bitartean, txalapartarien doinuak entzuteko aukera izan zen eta Xumela abesbatza hainbat kantu ere bai. Sorgin dantza-herrikoia plaza girotu zuen zitularien laguntza eta jaialdiari amaiera emateko, txokolatada handi bat prestatu zuten Okendo plazan bildu ziren hamamaka lagunak sabelak asetzeko.

Egunari amaiera eman amoz, ilunabarrean Makulu Kenek kontzertua eskaini zuten Okendo plazako taulan, eritmo alaiak.



Sorgin-dantza herrikoa egin zuten Okendon hainbat lasarteotiarrek.



Hasierako mural grisari piezak kenduta, argazi koloretsua osatu zuten Zero Zabor taldeko kideek.

# Negurekin batera, Mikel Laboaren oroimena kultur etxera itzuli da

Zendu zen Mikel Laboa. Baina ez da sekula guziti itzali euskal kantari eta musikagile maitatua. Ez zuen agur esan 2008ko abenduaren lehen egun hartan, gero arte baizik. Neguro itzultzen baita haren oroimena Euskal Herri osora, eta haren musikak belaualdiz belaualdiz iraun egingo baitu gainera.

Euskal kulturaren alde egoniko lan guztia eskertzeko eta Mikel Laboa zena gogoratze-ko Tiantaka konpainiak prestatutako antzerkia da Zazpi Aldiz Elur. Bernardo Atxagak Erlea aldizkariaren lehen alean idatzi zuen artikulua emanen dio antzerkiari izena, baina baita izena ere. Haren hitzetan oinarrituta baitago obra senitua hau.

Mireia Gabilondok zuzendutako emanaldia izan zen ostral ilunabarrekoa eta kultur-etxean ia 200 lagun bildu ziren zeresana emango duen

lana ikusteko.

Guztira bost interprete taularatu ziren. Bi aktore eta hiru musikari. Iñaki Rekarte eta Mireia Gabilondok eszenifikatu zituzten Laboaren 74 urtetako bizitzako zenbait pasarte. Euskaraz zein erdaraz esandako hitz eta egindako keinu bakoitza muturreraino bizita. Jakina, aktore protagonista nagusiez gain, Iñaki Salvadoren piano eta akordeoi doinuak, Angel Unzuren gitarra akordeak eta Maria Berasateren ahots finak ere izan zuten presentzia. Laboaren ahots biluzi eta erdi-urratuarenakin nolabait kontrastea eragiten du antzezlearen Berasateren erregiozko, baina ez da inolaz ere diskordantea. Diferentzia baizik. Ezberdina.

Bestalde, Manuel Lekuonako eskenatokia argi-efektu sotilekin jantzi zuten. Berezi-keigarriak izan ziren eszenaz



Mikel Laboaren bizitzako hainbat pasarte interpretatu zituzten Manuel Lekuonako oholtzan hiru musikari eta bi antzezlek.

aldatzerakoan plastikoz osatutako atzekaldean edota pianoaren tapan proiektatu zituzten Zumetan egindako Laboaren irudiak eta elur-malutak.

Gasteizen estreinatuta zuten bi aste atzera, berriki Donostian ikusteko aukera izan da eta ostiralean Lasarte-Oriak jaso zuten Zazpi Aldiz Elur-antzerkia. Dagoen lekuan

dagoela ere, Mikel Laboarentzat omenaldi bikaina da Zazpi Aldiz Elur. Txalo zaparrada luze batekin agurtu zituen interpreteak Lasarte-Oriako herriak.

# Euskal Inauteria igandean

Antolatzaileek txantxoz janztara animatzen dituzte herritarrak

Asteburuan izango dira Inauteriak eta herrian izango da festarako parada. Igandean, iazko bideari jarraiki, Itakunek Euskal Inauteri festa jendetsua egin nahi du eta horretarako txantxoz janzteko gonbea luzatu nahi die herritarrei. Goizean eta arratsaldean dantzan aterako da konpartsa herriko erdiguneko kaleetatik eta festari amaiera emango zailo hartzean erretzearekin batera. Dantzak ikasteko azken entsegua bihar izango da Sasoetako gimnasioan 20:00etatik 21:30era eta honetan parte hartzea deitzen dute.

## TXINTXARRI

Inauteri asteburu izango da datorrena. Askok eta askok dagoeneko mozorroa prest izango duzue baina beste batzuek berriz, azken orduan zerbait prestatu beharrean egongo zarete ziur.

Iaz bezala, larunbatean musika izango da gai nagusia udalak herriko konpartsekin batera erabakita, baina horretaz gain, bestelako mozorroak ere ikusiko dira kaleetan. Udaletik Inauteriak indartzea izan da azken urtetako helburua eta herriko elkarte eta taldeekin elkarlanean, lortu da urteik urtera konpartsa kopurua igotzea larunbateko desfilean.

Igandean berriz, Euskal Inauterien txanda izango da. 30 urtean ohiko antolatzaileek lekukoa Itakun Kultur Elkarteari pasa zioten eta horrela iaz bezala, auten ere igandean jendea mozorrotuta kalera irten eta festaz gozatzera animatu nahi dituzte herritarrak.

Euskal Herriko txoko askotako jantzi eta pertsonaiak ekarri nahi dituzte plazara eta horretarako prestaketa askorik ez dela behar diote Itakunetik. Etxean dauden arropekin modu errazean, mozorro dotore eta koloretua prestatzea posible dela azpimarratzen du Junkal Perezek.

Itakuneko ordezkarriak dio helburua konpartsa baitan ateratzen diren herritarrez gain, gainontzekoek ere soinean horrelakoak jantzita

kalera ateratzea dela. "Herriko kaleetan euskal inauterien presentzia zabaldu nahi dugu".

## Egitarua

Igandean 12:00etan, Euskal Inauterietako konpartsak hainbat ekintza burutuko ditu Okendo plazan.

Hamaiketako egin eta 12:45ean, erdiguneko dantzatu du: Okendo plaza, Kale Nagusia, Zumaburuko errotondan buelta eman eta Kale Nagusitik Tajamar errotondaraino, Hipodromo etorbideetik jaitsi eta Okendo plazan bukatuko dute ibilbidea.

17:30ean, konpartsak, berriro ere, goizeko ibilbidea egingo du.

19:00etan, dantza eta hartza erretzearekin egingo zaitu Okendo plazan.

Honekin batera gogoratu nahi da dantzen azken entsegu irekia bihar, asteartean egingo dela 20:00etatik 21:30era Sasoeta ikastetxekeo gimnasioan.

## Txantxo jantzia nola prestatu

Igandeko festan txantxoz jantzita plazaratzeko aitzakariak ez dagoela azpimarratzen dute antolakuntzatik eta horregatik hainbat gomendio luzatzen dituzte herritarrak mozorrotzera animatu daitezkeen.

Mozorro koloretua Miel Otxinen antzekoa edo zakuz eginga Ziripoten antzekoa, edozerk balio du inauterietan. Soinean.- Blusa (sanpedro-



Plaza bete nahi dute Euskal Inauteri koloretuekin iaz egin bezala.

taoak), amonaren sukaldeko bata, aitaren hippy garaiak alkindora, arpillera zakua,...

Azpikogona eta galtzak.- Mahoizkoak, loreduak, pija-

ma zaharra, koloretako edozein galtza...

Oinetan.- Artilezko galtzerdiak, abarkak edo botak ... nahi dena.

Buruan.- Lastozko txanoak edo kukurutxoak, dena zinta politez josia. Txapela beltza edo koloretako, bestelako txapel bat.

Ez ahaztu aurpegia ezkutatzea; horretarako ipini oihail fin bat kapelatik zintzilikatuta edo maskara gisa, arnasa hartzen utziko dizuna, nahi izanez gero egin ikusteko eta arnasa hartzeko zuloak.

Eskuetan.- Eskuetan erratza, makila, zartagina, ferratzekeo mailua, sardea, txintxarriak, kanpaitxoak,...

Gogoratu helburua ondo pasatzea dela, eta horretarako ez dela sekulako mozorroa behar. Armairua arakota (zurea, familiarena edota lagunena), lotsak astindu eta aurrera!



Iaz txantxoen artean Zuberoako maskaradako Pitxu ikusteko aukera izan zen.

## ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua

Solomoa baratxuritan

Baserri pateak



**BERTAKO FABRIKAZIOA**

Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Etxeko txorizoa

Basurde burua

## PILOTA.



Axier Arteaga Intzako jubeniletan eta Ogi-Berri torneon ari da lehiatzen.

## Axier Arteaga Ogi-Berri torneon lehian

Intzako Axier Arteaga pilota-ria II. Ogi-Berri Migel Soroa Torneon lehian ari da Tolosan.

Beotibarren jokatzeko den bikotekako lehiaketa honetan, 21 urte azpiko mailan ari da Erostarbe zumaragarrekin batera.

Txapelketa urtarriaren 18an hasi zen arren, otsailaren 1ean jokatu zuen bikotekako sailkapeneko partida Olano eta Sanchezen aurka. Lan ederra egin behar izan zuten bikotekako partida irabazteko, 19-22.

Hau gaundituta, hiruko ligaketa bat jokatu ari da bikotekako. Otsailaren 15ean, larunbatean Altuna eta Sarasaren aurkako norgehiagoka izan zuten. Ikuskizun handia sortu zuen partida honek, honetan Jokin Altuna eta Axier Arteaga aurrez aurre zudealdu. Baina Altuna eta Sarasaren jokoak hobeia izan

zen eta 8-22 galdu zuten Arteaga eta Erostarbek.

Juan Mari Arteaga entrenatzaile eta Axierren aitak aipatu digunez, "Axier ongi dago, maila onean. Baina bikoteari zortea falta izan zitzaion lehengoan. Egun txarra izan zuten eta aurkaria ere oso ona zen".

Eta martxoaren 1ean berebiziko partidako jokatu duela aipatu digu Juan Mari, "Irabaziz gero aukera handiak daude sailkatzeko eta final erdian egoteko".

### GRAVN

Era berean, Axier Arteaga Gipuzkoako selekzioarekin probak egiten ari dela ere aurreratu digu. Aurreratu izan zuten gero, "GRAVN lehiatuko du Axierrek. Honetan Errioxa, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta lehengoaz Iparraldeko pilotariengaz aurka borrokatuko litzateke.

## ATLETISMOA.

## LOKEko atletak ederki Euskadikoan

### Zilarrezko eta brontzezko domina bana lortu zituzten

**Absolutu mailako Euskadiko txapelketan fin ibili ziren lehengo astean LOKEko atletak. Itoitz Rodríguez bigarren izan zen 200 m. lasterketan eta Maider Rekondo hirugarren pisu jaurtiketan. Gainontzeko atletak finaletan izan ziren lehian.**

### NEREA EIZAGIRRE

LOKE atletismo taldeko gazteak otsailaren 15 eta 16an Donostian izan zuten Euskal Herriko txapelketan maila altuan lehiatu ziren. Bi domina lortu zituzten 200 m. lasterketan eta pisu jaurtiketan eta hainbat atleta finaletan izan ziren.

Oskar Goikoetxea entrenatzailea oso pozik agertu da atleta gutxiak egindako lanarekin. Nahiz eta domina askorik ez lortu, gazte gehienek finaletan egotea lortu zuten. "Dagokien maila baino altuagoan lehiatu zirela kontuan izan behar da, gehienak junior, jubenil edo kadetekak baitira".

Itoitz Rodríguez gaztea berriro ere primeran lehiatu zen. 200 m. lasterketa bigarren postuan amaïtu zuen



Itoitz Rodríguez 200 m. lasterketako podiumeko bigarren koskan.

lehengo postutik ehuneko gutxietara. "Oso marka ona egin zuen, kontuan izan behar da juniorra dela" aipatu du LOKEko entrenatzaileak.

Bigarren domina Maider Rekondok lortu zuen pisu jaurtiketa proban. Lasarte-Oriako gaztea hirugarren izan zen, 10 m. eta 5 m. markarekin.

### Finaletan

Bestalde, Maria Eugi eta Idola Olasagastik marka pertsonalak hobetu zituzten bai 60 m. lasterketan, baita 200 m. lasterketan ere eta finaletan lehiatu ziren.

Finalista izan ziren era berean, Gaizka Omazabal 400 m. lasterketan, Yeray Veroniz 60 m. lasterketan, Jon Altuna 800 m. lasterketan, Eneritz Busto altxerua eta Ane Galardi jauzi hirukoitzean.

### Txapelketaz txapelketa

Asteburu honetan, hainbat atleta Gipuzkoako selekzioarekin Zaragozan izan dira lehian, beste batzuk, aldez, Euskadiko jaurtiketa luzeetako txapelketan.

Hurrengo asteburuan, kadete, jubenil eta junior mailako Euskal Herriko txapelketa izango da eta marka eta domina gehiago espero dituzte atletak.

## JUDO.

## Baldak zilarrezko domina Gipuzkoako txapelketan

LOKEko judokak otsailaren 9an, Gipuzkoako kadete mailako txapelketan izan ziren. Fermin Balda gazteak bigarren postua eskuratu zuen 73 kilo azpiko mailan.

LOKEko lau judokak kadete mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuten, baina Balda izan zen podiumean izan zen bakarra.

Fermin Baldak txapelketa bikaina egin zuela aipatu digu Corka Aristegi entrenatzaileak. Hiru borroka irabazi ostean iritsi zen finalera. Epailleen zortetik ez izan zuten eta borroka galdu zuen.

Mikel Lasa ere podiumetik gertu ibili zen. Finalerdian kanporatua izan zen, baina bigarrenengo aukeran hiruga-

ren posturako lehian sartu zen. Tamalez ez zuen norgehiagoka hori irabazi.

Haritz Urdangarin eta Oscar Garrido izan ziren beste bi partehartzaileak. Aristegik aipatu legez, Garrido lehiatutako lesionatu zuen, "puntu handia izan zen".

### Eskola kirola

Bestalde, infantil mailako eskola kiroleko sailkapena izan eta emaitza ederrak izan zituzten LOKEko gazte-txoeak. Alex Saletak bigarren postua eskuratu zuen eta Ander Garridok eta Iker Sanchezek brontzea lortu zuten.

Hauetaz gain, Garikoitz Mena, Yeray Mendibe eta Unai Posada ere izan ziren



Fermin Balda dominarekin eta infantil mailako eskola kiroleko judokak. G. ARISTEGI

lehian. Nahiz eta dominarik ez eskuratu aurreko postuetan izan ziren hauek eta horregatik gutxiak lortu zuten Gipuzkoako finalerako txantela.

Alebinek, berriz, otsailaren 16an izan zuten sailkapena Hernanin. Honetan Xabier Morales, Lucas Morales, Lan-

der Guerra, Julen Espinosa, Jesus Curiel, Erik Bermejo, Sergio Faro, Mikel Eizagirre, Ibai Aranguren eta Arkaitz Santosek maila altua erakutsi zuten aipatu du entrenatzaileak. Gainera, denak Gipuzkoako txapelketarako sailkatu zirela ere jakitera eman du.

## LABURRAK.

### Infantil mailako gimnastak ere ederki lehiatu

LOKEko infantil mailako gimnastek Eskolarteko B mailako txapelketa izan zuten lehengo ingandean Oñartzunen.

Bai bakarka baita taldean ere utziariek egin behar izan zuten lan. Infantil taldeak 4. postua lortu zuten eta bakarkako saioan, berriz, Naroa Sanz gaztekoak 8. postua eskuratu zuten.

### Buruntz-Azpiren ehiza txapelketa

Buruntz-Azpi elkarteak martxoaren 9an bakurarekin egiten den ehiza xehite lehiaketa antolatu du eta ostean, bazkaria.

Izena ematea elkartearen egin behar da martxoaren 6a baino lehen. Ordainketa inskripzioarekin batera egingo da.

— Agenda —

Asteazkena 26, 19:30ean, Elebeltz Topagunea



Euskal bardoaren istorioa

"Garbot" filma ikusgai izango da. Bardo deitzen zaio herriaren oroimena eta kultura gordetzen duen kantariari. Eta horixe da Orreagako abade berriak nahi ez duena. Hargatik, Garbot, bertako bardo, deseriratu eta Mikelot, haren semea bahituko du latinez kantatuko duen fraide bihurtzeko. Tragedia XII. mendean. Hasi da konkista aurreko konkista. Euskaraz.

egindako bidaia azalduko du, eskalardarako lekuak eta paisai ederrak ikusi ahaliko dira.

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 27, 18:00etan

3-5 urte bitarteko haurrentzat ipuin irakurketa izango da.

Ikastaroa

ELEBELTZ TOPAGUEA

Otsaileko ostiraletan arratsaldez Gitarraiko ikastaroa eskainiko du Julen Basterrak.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Otsailean zehar

"El Estudio del pintor" akademiako ikasleen lanak ikusgai.



Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 28, 22:00etan

Okendo Zinema taldearen denboraldi berriko saioa, "Stockholm" filma ikusi ahaliko da. Sarrera, leihatilan, 4,70 euro; internet bidez, 4,24 euro.



Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteazkena 26, 19:00etan

Udal Musika eskolako ikasle eta irakasleek kontzertu bufoa eskainiko dute.

ZULO ARETOA

Osteguna 27, 21:00etan

Alemaniko "The Roaring 40s" taldeak kontzertua eskainiko du. Surf rock eta 60. hamarkada amaierako pre-Punk-az gozatzeko aukera.

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 28, 23:30ean

"Stanley Road" taldeak bere LP berria

"Spanish Art Today" aurkezuko du. Sarrera, 6 euro. Ostean, dj saioa izango da.

BAI Topaketa

VILLA MIRENTXUN

Asteazkena 26, 19:00etan

I. BAI topakeren barruan, Enplegua sustatzeko asmoz, arloko espezialistek zuzendutako foroa izango da.

Diaporama

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Asteazkena 26, 19:30ean

Alex Tetuanek lagunekin Korsikara

— Herritarren txokoa —

Maria Auxiliadorearen ohorezko meza

Maria Auxiliadorearen ohorezko meza Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadorearen meza ospatuko da otsailean 24an, astelehena, arratsaldeko 17:00etan.

Odol-ateratzeko

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeko egingo dituzte Osasun Zentroan otsailean 24ean, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odol ordezkaezina da eta odol falta dago!

Biyak Bat elkartearen bidaia

Biyak Bat elkarteak Granada, Kordoba eta Sevillara bidaia antolatuta du. Maiatzaren 26a eta ekainaren 4a bitartean izango da txangoa.

Elkarteko kideak jaktera eman dute-nez, Lasarte-Oriatik Zaragozara autobusez egingo da bidaia eta Zaragozatik Sevillara, berriaz, AVE-an.

Izena ematea ireki da. Informazio gehiago eskuratu nahi duten herritarrek elkarteko bulegora hurbiltzea besterik ez dute, astelehenetik ostirala, 10:30tik 12:30ra.

Megaba elkarteak kide berrien bila

Lasarte-Oriako Megaba elkarteak jende gehiago behar du bere jarduna aurrera eramateko. Horregatik, herritarrek animatzen dituzte honetan parte hartzera.

Horretarako [www.megaba.es](http://www.megaba.es) weban formulario bat bete edota 649 513102 telefonora deitu behar da. Urtean 10 euroko kuota ordaintzen dute.

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatuta dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteko lokalean banatzen dira barzak eta frutak, gariak garaiokak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat atek zabalki dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko [rolasartearia@hotmail.com](mailto:rolasartearia@hotmail.com) helbidea.

— Sarean —

Euskaraz hitz egiten den lekuak ezagutzeko app-a

Euskaraz egiten den leku baten bila bazabiltza edo euskaraz egiten duten lagun berriak egin nahi badituzu hemen aplikazio berrira, Mintzatu.

Mintzatu euskaraz hitz egiten den munduko lekuen sarea da. Euskaldunok elikatutako eta euskararen aldeko plataforma da. Izan ere, euskaraz hitz egiten den munduko leku guztiak elkarlanaren bidez identifikatzea helburutzat daukan proiektua da.

Plataforma parte hartzailea, dibertigarria, ludikoa eta soziala. Mintzatu aplikazioaren bidez euskaraz hitz egiten den lekuak sortu, identifikatu eta zabal daitezke. Unean euskaraz ar den leku zabaldu dezake erabiltzaileak eta edukiez osatu: argazkiak, iruzkinak, plataforma barruan lagun berriak egin eta elkarriketak izan.

Era berean, Mintzatu euskaraz hitz egiteko leku eta persona berriak aurkitzera ere lagundu du ar. Mugikorretik bilaketak egin ahal dira kategoriaren arabera, lekuetan zein jendek 'check in' egin duen ikusi, beren adiskidetasuna eskatu, etab. Eta lekuak gordetzen dituzten altxor eta gariurak ere deskubritu daitezke.

Gaitnera, beste sare sozialetan ere erabiltzailea euskaraz arri dela zabalteko aukera dago. Irontec TIC enpresak egindako aplikazioa oraingoz Android mugikorretzat dago bakarrik eskuragarri.



**Zuen oharrak jarri, gehak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858

[tintxarri@tintxarri.info](mailto:tintxarri@tintxarri.info)



Asteburuko ekitaldi jendetsuena Arantzakoko Amaren parrokan ospatutako meza rozieroa izan da.

## Andaluziarren eguna

### Semblantek ekintzaz jantzi du asteburua

*Egun handia da otsailaren 28a andaluziarrentzat, baina ospakizuna aurreratu egin dute aurtengoan. Ostiraletik hasi eta igandera bitartean hainbat emanaldi prestatu dituzte arteen XXI. aldiz Semblante Andaluzeko kideek Atsokabar ousaon duten egoitzan. Berezia izan da hamalau hilibetereen ostein, Jose Perez Acosta zuzendari ohiaik lekukoa Juan Vicente Perez pasatua. Orain arteko bideari jarraitzeko konpromisoa hartu du zuzendaritza berriak.*

JON ALTUNA EGITEGI

Andaluzia Eguna ondo hasteko, "fino" ardoarekin brindisa egin zuten ostiraletan Semblante Andaluzeko kideek. Hortik aurrera, igande arratsalderaino etenik izan ez zuten ospakizuna izan zuten.

Jose Perez Acosta lehendakari ohiaik eskerrak eman zizkien bazkideei bera presidente zenean jasotako laguntza guztiagatik. Juan Vicente Perezek bere aldetik Semblanteren eta Lasarte-Oriaren alde lanean jarraitzeko konprometua berretsi zuen.

Pablo Barriok ere esker oneko hitzak izan zituen Semblante Andaluzekiko: "Lan bikaina egin duzue, herrian antolatzen diren ekitaldi kultural guztietan zaude eta gainera, herrian ditugun

bi Lasarte-Orien topaleku zarete, bide horretan jarrai ezazue".

Larunbatean berri, musikak hartu zuen protagonismoa. Citanillos del Alba, Duende Flamenco, Azabache, Zambra eta Merche Montes herritarrak egoitzako oholtzan sevillana, salve eta antzekoak inprematu zituzten maisutasun handiz.

Aurtengo sorpresa Paco Carrion eta David Escudero-ren kontzertua izan da. Flamenco doinu biziak eskaini zituzten eta zentzuleak gustura entzun zituzten hegoaldeko akordeak.

#### Igandea, egun handia

Ospakizun berezianak ordea, festaren egun handia, igandea izan zen. Goizean meza rociero-egun izan zuten Arantzakoko Ama Birjinaren parrokan.

Coro Rociero abesbatzak hainbat abesti jo eta kantatu zituen elizan bertan.

Meza amaituta, Semblante Andaluz elkartearen egindako bazkarian 125 jankide elkartu ziren. Menua: zizka-mizkak, bakailua karmelitana erara, solomilloa piperrarekin, izozkia, flana eta kafea. Bazkalteari ekin aurretik Andaluziako ereserki abestu zuten lege onez.

Aurpegi ezagun asko ikusteko aukera izan zen, Martin Garitano Gipuzkoako Ahal-dun Nagusia, Garbiñe Ere-kondo Foru Aldundiko Administrazio Publikoko diputatua, Pablo Barrio alkate, alderdi ezberdinetako udal-ordezkariek, Lasarte-Oriako eta Donostiako Extremadura eteko ordezkariek, Asun Barbero Hermandad elkarteko lehendakaria eta Fili Salcedo Andoaingo Emakumeen elkarteko lehendakaria besteak beste.

Arratsaldean Amigos del Sur taldearen ekitaldiarekin eta dantzaldi herrikoiarekin eman zitaizun amaiera hiru egun iraun duen herriko andaluziarren festa handiari, giro ederrean.



Martin Garitano Gipuzkoako Ahal-dun Nagusia Semblanteren egoitzan izan zen. "Zuen etxeko atea ireki didazue, eta nik sartu egin nahi dut", esan zuen.



Udal-ordezkariek fino ardoarekin topa eginen, Juan Vicente Perez lehendakaria erdian.



Herriko taldeez gain, aurtengo berrikuntza nagusietakoa Paco Carrion flamenco kantaria eta David Escudero gitarra-jolearen emanaldi izan zen.

## GURUTZETA SAGARDOATEGIA

20€ MENUA ASTELEHEN, ASTEARTE ETA OSTEGUNETAN

ZATOZ  
TXOTXEGITERA!

EGUNERO IREKITA  
ASTELEHENETIK LARUNBATERA  
ARTE,  
EGUERDI ETA GAUETAN.  
IGANDEA ITXITA.

ASTEAZKENETAN "OTXOTEA"

ENKARGUZ ESKATU DAITEZKEENAK:  
BAKAILUA SALTSAN  
SAHIESKIA

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)  
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com